



Pil-pilean

TURKIOI

Soraluzeko hilabetekaria
2023ko urria · 403 alea



AZOKARAKO PRESTATZEN



PIL-PILEAN 403

2023ko urria

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|---|---|
| 4 | Elkarrizketa Aitor Arruabarrena | IRITZIA |
| 6 | Begira Sagar batzen gustura | 3 Neuretik Jondar Plata <i>Garai ilunak</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 16 Gutunak Mertxe Galarraga
<i>Malmeroko presaren ondoko nire bizipenak</i> |
| 12 | Argazki bidez Marraskilo tour | 17 Hausnarketa Euskararen
erabileraren kontrako epaiak
ugaritzen |
| 18 | Erreportajea Gaztaferre azoka | 17 Puntua Xabier Iñurrieta <i>Kokaina</i> |
| 25 | Kirola Inoizko abonatu gehien
kiroldegian | |
| 26 | Kultura Badator berriz bluesa | |
| 28 | Nondik nora Perutik Soraluzera | |
| 30 | Zerbitzuak Zorion-agurrak,
oroitzak, iragarki laburrak... | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa

Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea

Miren Gallastegi

Diseinua

Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa

Oier Larreategi

Inprimategia:

Gertu Koop.

Banaketa:

Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:

SS-537-2000

Tirada:

2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

SORALUCE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

Garai ilunak



JONDAR PLATA

Telebista edo irratia piztu, sare-sozialetan sartu, kalean edo lagun artean eztabaidak... Hiru aste pasatu dira Hamaseko kideek Israel eraso zutenetik. Jakinda Israelek erakusten duen segurtasun maila, indar militarra eta munduko inteligentzia zerbitzurik onenetarikoak dituela, benetan ezinezkoa iruditzen zait hainbeste gauza gaizki egin izana Hamasi halako aukera bat emateko: Israelek eraikitako horma eta hesiak apurtu, muga inguruan dauden herrietan sartu eta zibilei eraso egin ehunka lagun akabatuz.

Israelek Hamasek egindako sarraskiari erantzungo ziola argi genuen guztiok, baina urriaren 7tik hona ikusi ditugun gertakari guztiek burura ekartzen dizkirate orain dela 80 urteko irudiak, munduak bizi izan dituen garairik ilunenak. Bonbardaketa masiboak hirietara, etnia edo erlijioarengatik erasoak, bizitzeko ezinbestekoak diren ura, janari edo argindarra emateko erregaiak poblazio zibilari ukatzea...

Benetan ez nuen uste halako gertakariak ikusiko nituenik "demokraziatzat" hartzen dugun herrialde baten aldetik, are gutxiago munduko demokrazia nagusiek elkartasuna erakutsiko ziotenik ere.

Gazan 2 milioitik gora pertsona bizi dira, erdiak umeak eta gazteak. Israelek poblazio zibilari bere lurraldetik joateko esaten dio, bestela ondorio guztiak jasango dituztela lurraldean sartzen direnean. Onartezina da halako aldarrikapen bat egitea eta herrialde horrek duen muga bakarra itxita mantentzea, airez erasotzen duen bitartean. Gaza kartzela handi bat bihurtu dute, erasotzen ari diren kartzela.

Larrialdi egoera hori gora doa eta, laguntza minimoak ukatzen diren bitartean, Gazan bizi diren pertsonen etorkizuna hari batetik zintzilik dago. Herrialdearen azpiegitura guztiak suntsitzen ari diren bitartean, janaria eta ura agortzen doaz. Ez dira giza eskubideak bermatzen, giza eskubideei eraso egiten ari dira.

Garai ilunak bizi dituzte Ekialde Hurbilean, xakea izango balitz bezala, beldur naiz hurrengo mugimendua zein izango den. Zonaldean zelako hitzak erabiltzen dituzten entzunda, Hezbolla, Iran eta Israelen artean, espero dudana bakarra da liskar hori ez zabaltzea zonalde osora.

**EZ DIRA GIZA
ESKUBIDEAK
BERMATZEN, GIZA
ESKUBIDEAK
ERASOTZEN ARI DIRA**

“Batik bat, hirietako hilerriek dituzte gauza ikusgarriak”

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: AITOR ARRUABARRENA

Aitor Arruabarrenak (Soraluze, 1993) nekroturismoa egiten du. Nekroturismoa da kanposantuak, nekropoliak, katakonbak... bisitatzea, haien aberastasun arkitektonikoak, artistikoak edo paisajistikoak ikusteko, haietan dauden kondaira ezagutzeko zein bertan dauden pertsona ezagunen berri izateko. Arimen Gaua, Gaba Beltza dator; egunotan, kanposantuak nabarmen dotoretzen dira eta bisitari askoz gehiago dituzte.

Arimen Gauaren harira, kanposantu gehiago bisitatu duzu?

Nik ez dut data konkreturik hilerriak bisitatzeko. Egiten dudana da oporretan norabait noanean, ahal badut, hango hilerria bisitatu. Gainera, seguru aski, ez litzaidake gustatuko Domu Santu egunaren hilerriara joatea, jende asko egoten da, familia asko, jendea triste... Ez da unerik onena.

Zergatik egiten duzu nekroturismoa?

Txikitatik gustatu izan zaizkit misterioa eta beldurrezko pelikulak—eta. Bestalde, Instagramen eta Interneten badaude nekroturismoarekin lotutako orriak, blogak... *Entretumbas* da bat, adibidez. Bisitetarako gomendioak ematen ditu. Halakoak ikusten, pentsatu nuen gustatuko litzaidakeela argazkietan barik zuzenean ikustea han gomendatzen zituztenak. Askok pentsatzen dute hilerriara joatea makabroa edo siniestroa dela. Ez dira eroso sentitzen, beldurra ematen die... Eta justu kontrako da, hilerri baten ez dago ia inor, oso lasai egoten da; kalean askoz ere arrisku gehiago daude eta irteten gara kalera. Uste baino jende gehiagok bisitatu dituzte hilerriak; gainera, batzuetan egoten dira gidatutako bisitak, talde bisitak... hilerrietan istorio asko ere badaude. Ni ez noa hilerrietara gauza tristeak ikustera ezta hildakoak gustuko ditudalako ere, beste gauza batzuk baloratzen, baizik. Nire ustez, artea da. Batzuk Guggenheimerera doaz margolanak ikustera eta nik, adibidez, hori ez dut berdin apreziatzen nahiz eta aita margolaria dudana.

Zein kanposantu bisitatu izan duzu?

Soraluzekoa aspaldi, Bilbon dauden biak -Deriokoa eta Deustu-Arangoitikoa-, Bartzelonako biak -Montjuic eta Poble Nou-, Milango Cimitero Monumentale hilerria, Segoviakoa, Logroñokoa, A Coruña San Amaro... Dezente ditut ikusita.

Zein hilerri eman dizu arreta?

Batetik, Bartzelonako Montjuic hilerriak, erraldoia delako. Barrutik autobusak ibiltzen dira jendea eramateko. Nekropoli bat da, herri handi baten modukoa. Bestetik, Milangoak. Pentsatzen dut Milanen hilerri gehiago egongo direla, baina Monumentale da aberatsen hilerria, diru asko dago han barruan. Orain dela asko joan nintzen, baina hori dut gogoan, dirudunak zeudela han. Eta hirugarrenik, Deriokoa, oso nabarmen desberdintzen direlako jende apalaren edo arruntaren hilobiak eta dirudunen hilobiak. Desberdintasun handiak ikusten dira.

Ikusi izan duzu pertsona edo gauza berezirik hilerrietan?

Milangoan Campari edariaren sortzaile David de Campariren hilobia ikusi nuen. Demasa da. *Azken Afaria* irudikatzen duen eskultura baten azpian ehortzita dago. Logroñokoa, berriz, oso argi ikusten da zenbait kulturatako hilobiak zeintzuk ziren. Oso deigarriak dira, oso koloretsuak, kurtsiak nire gusturako, baina oso-oso ondo zainduta eta garbi egoten dira. Bartzelonako Poble Nou hilerria, berriz, Montjuicekoa baino asko txikiagoa da, baina nekroturismoan oso ezaguna den eskultura bat dago: Herioren Musua.

Soraluzeko kanposantuak badu berezitasunik?

Gogoan dudanez ez; baina akaso izan lezake, aspaldi ez naizela joan.

Zein hilerri nahiko zenuke bisitatu?

Hilabete barru Madrileria noa kontzertu batzuk ikustera eta seguru aski hango hilerria ezagutzera joango naiz, La Almudenara; hura ere demasa izango da. Gauza asko ditu ikusteko. Munduan, berriz, Pariskoa... Batik bat hirietako hilerriek izaten dituzte gauza ikusgarriak.



Sagar batzen, gustura

ARGAZKIA ETA TESTUA: EGOITZ

UNAMUNO

Urriaren 4an, dozenaka ume etorri ziren Argarateko sagastira, sagarrak batzera. Adarrak astinduz eta kainaberarekin aleak kolpatuz bota genituen sagar aleak lurrera, ondoren galdarara batu, zakuetan eskolara eroan eta han konpota egiteko. Nik ez dakit ume horietako zenbati gustatzen zaion konpota, baina badakit gehienei gustatzen zaiela sagarrak batzea eta arbolatik batu berritan jatea. Neure begiz ikusi nuen eta. Ez hori bakarrik, behin eta berriz, erregutu zidaten kainabera eurei lagatzeko. Laga nien, eta han jardun zuten dinbi eta danba, sagar aleak batera eta bestera jaurtiz. Aleren batzuek buruak eta bizkarrak ere kolpatu zituzten, baina umei bost axola, grinak mina baretzen du, nonbait... Niri poz eman zidan umeak hain pozik ikusteak eta pentsatu nuen neurekiko erraza eta ederra litzatekeela halakoak sarriago egitea.







Gaizka Aranguren bere hitzaldiaren amaieran.



Herritarrak.

Abiatu da hausnarketa

Eguaztenean, ehun herritar baino gehiago batu ziren presen prozesuaren lehen saioan. Bertan, Alkateak jakinarazi zuen prozesuak ez duela amaiera datarik eta “behar den asti guztia” hartuko dela.

Eguenean abiatu zen antzokian Udalak *Ibaiko presekin zer egin erabakitzeko* antolatu duen *partaidetzazko prozesua*. Lehenengo saio horretan, ehun herritarrek baino gehiagok parte hartu zuten eta bi ordu inguru iraun zuen ekitaldia giro lasaian joan zen. Lehenik, Alkateak prozesuaren tempusen eta helburuen berri eman zuen eta ostean, Gaizka Aranguren adituak ordubete pasatxoko hitzaldi pedagogikoa eskaini zuen. Ondoren, herritarrek presek ibaiari eragiten dizkioten kalteak eta onurak zerrendatu zituzten eta zenbait galdera egin zizkioten Arangureni.

Prozesu “bizi”

Saioaren hasieran Unai Larreategi Alkateak hartu zuen hitza eta bertaratu ziren herritarrei “eskerrak” eman eta gero, prozesuaren nondik norakoek berri eman zuen. Hasteko, helburua zein izango den azaldu zuen: “Prozesuaren helburua izango da soraluzetarrek ibaiarekin eta presekin zer egin nahi duten eztabaidatzea, aurrera begira hartu behar diren erabakiak herritarren iritziak kontuan hartuta har daitezten. Helburua ez da Merlin bai ala Merlin ez”. Ostean, azaldu zuen prozesuak ez duela izango “amaierako datarik”: “Prozesu bizi bat izango da. Lehen zati hau azaroan amaituko da eta egia

da data horrek kointziditzen duela Diputazioetik ipini diguten datarekin (azaroak 30), baina garbi esanda, gure esku egongo dela denari baietz esan, parte bati baietz esan edo denari ezetz esatea. Diputazioak onartuko du gure erabakia. Galdera inportantea: helduko gara azaro amaierara gauzak argi ditugula erabakia kontsentsuz hartzeko? Ba, ez dakigu”.

Ondoren, azaroan zehar egingo diren gainerako saioen berri eman zuen. Hala, bigarren saioa, azaroaren 8an egingo dute eta bertan, Ura Agentziako eta Aranzadiko kideak izango dira hizlari, hurrenez hurren, uholde arriskuen inguruko informazioa eman eta presen ondareari balioa emateko proposamena aurkeztuko dute. Hirugarren saioaren data zehaztu gabe dago, baina

"PRESAK TRONBOAK DIRA IBAIENTZAT ETA KALTE HANDIA ERAGITEN DIETE. HORI FROGATUTA DAGO."

bertan GDI taldeak izango du hitza, taldeak hala eskatu eta gero, Udalak onartu baitu saio monografiko bat eskaintzea. Azkenik, azaroaren 29an laugarren saioa egingo da, aurreko saioetan esandakoak jaso eta ondorioak jasotzeko.

Ondarea eta ibaiaren osasuna

Gaizka Arangurennek “ondarearen eta ibaiaren osasunaren” artean bilatu beharreko orekaz jardun zuen. Iruindarrak gaur egun jatorrizko funtziorik betetzen ez duten Nafarroako eta Aragoiko hainbat presen adibideak aurkeztu zituen: Santa Engrazi (Iruñea), Salto del Bierge (Huesca), Endarlatsa (Bera), Txokoto (Elizondo), Burgi (Erronkari)... Azaldu zuen haietako bakoitzak garrantzi maila konkretu bat duela

ondarearen ikuspegitik eta “inguruko biztanleen imaginario kolektiboan” baina baita “kostu ekologiko bat” ere. Arangurennek nabarmendu zuenez, “presak tronboak dira ibaientzat eta kalte handia eragiten diote ibaiaren osasunari”, “hori ukazina da, frogatua dago eta mundu osoko zientzialariek onartzen dute hala dela”, gaineratu zuen. Ondoren, jakinarazi zuen, berak zein erabaki hartuko lukeen aurretik aurkeztu zituen adibideen inguruan eta proposatu zuen,

"ONDAREA ETA IBAIAREN OSASUNA KONTUAN HARTUTA HARTU BEHARKO LITZATEKE ERABAKIA"

bere ustez, Soraluzeko presen gaineko erabakia ere bi alderdi horiek "ondarea eta ibaiaren osasuna" kontuan hartuta hartu beharko litzatekeela. Soraluzeko kasuan, ez zuen iritzirik eman eta “hori zuek erabaki behar duzue”, esanez amaitu zuen hitzaldia.

Kalteak eta onurak

Saioaren azken atalean, herritarrak taldeka banatu zituzten eta eskatu zieten zerrendatzeko bakoitzaren ustez presak botatzeak zein “kalte” eta “onura” ekarriko lukeen. Kalteen atalean aipatu zituzten, besteak beste: “Ur lamina galtzea, zikinkeria bistaratzea, irudi ederrena galtzea, ...”. Onuren atalean, berriz: “Ibaiaren osasuna hobetzea, sedimentuak joatea, uholde arriskua gutxitzea...”.

Adituaren erantzunak herritarren galderei

Saioaren azken zatian, Aranguren hainbat gairen inguruan galdetu zioten eta Azkoa Ibisate hidrogeologian adituaren laguntzaz erantzun zituen.

Eremu urbanoan presa gutxiago botatzen ari dira?

Ez, leku guztietan ari dira botatzen presak. Hori bai, leku urbanoetan ibaia lehengoratzeko dauden aukerak mugatuagoak dira.

Presak botata, temperaturak gora egingo luke inguru horretan?

Ez, kontrakoa. Ur emaria libre doanean freskoagoa da. Ur

geldoa pilatzen den lekuak dira gehien berotzen direnak.

Eltxoak ugarituko lirateke?

Kontrakoa. Ur korrontea dagoen lekuan eltxo gutxiago izaten da. Eltxoak ugariagoak dira ur geldotan.

Sedimentuen artean metal astunak egon daitezke. Ez da arriskutsua horiek ibaian behera bidaltzea?

Halakoan susmoa dagoenean, azterketa kimikoak egiten dira eta baieztatuz gero, kendu beharko lirateke eta tratatuko diren lekuetara eroan.

Zein iritzi duzu Merlin proiektuaz?

Badut iritzia, baina ez dut nahi zuen aurrean azaltzerik, gainerakoan iruditzen zait baldintzatuko nukeela zuen hausnarketa.

Landarediarekin zikinkeria gehiago ikusiko da, plastikoak...

Ya, baina arazoa ez da landaredia, arazoa plastikoak dira. Zer nahi dugu, ez dadila zikinkeriarik egon ala bakarrik ezkutatu? Noski, ezkutatu nahi badugu, landaredirik ez eta ezkutatu dezagun dena ur laminapean... Nik ulertzen dut batzuk aipatzen duzuenean ur lamina hori herriaren ikono dela, baina zer kostu dauka horrek? Zerk balio du gehiago? Hori zuek erabaki behar duzue.

Zaintza sistema aldatzeko greba

"Grebaren inguruan hausnartu eta proposamenak bideratzeko" topaketa deitu dute urriaren 30ean, 18:30ean, Gaztetxean.

"Bizitzak erdigunera ekarriko dituen zaintza eskubide kolektiboa aldarrikatzeko" greba deitu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Deialdia ELA, LAB, Steilas, ESK, EHNE, Etxalde eta CGT sindikatuek eta pentsiodunen mugimenduek babestu dute eta emakumeak zein gizonak daude protestara deituta azaroaren 30ean.

Deitzaileek salatu dutenez, "zaintza lan guztiak feminizatuak, ikusezinak,

prekarizatuak eta pribatizatuak daude. Beraz, bizitza sostengatzeko ezinbestekoak diren lan horiek emakumeen esplotazioan oinarritzen dira. Horrek esan nahi du zaintza, eskubide bezala, ez dagoela aitortua, ezta bermatuta ere. Horregatik, zaintza lanak erdigunean kokatzeko garaia" dela uste dute. Grebaren bitartez, "ardura eta erantzukizuna" ere exijituko diete sistema bere horretan mantentzearen alde egiten dutenei.

Egoitzan, Udalean...

Greba deitzaileen arrazoiak datuz janzteko, Soraluzen, zaintzekin lotuta dauden hiru zerbitzutako datuak jaso dira, egoitzakoak (Eguneko Zentroa barne), Udaleko Ongizate Sailekoak eta Institututukoak; datuon arabera oraindik gehienbat emakumeak arduratzen dira zaintza lanetaz. Gero eta gizon zaintzaile gehiago dagoela ere badiote, baina oraingoz, haien partaidetzak txikia izaten segitzen du.

Astelehenean, topaketa

Bestalde, Soraluzen, "greba orokor feministaren inguruan hausnartu eta proposamenak bideratzeko" astelehenean, urriaren 30ean, *Begirada bat grebara* topaketa deitu dute. 18:30ean egin dute hitzordua, Gaztetxean.

Mesedeetako egoitza

Mesedeetako egoitzak dituen 52 langileetatik, 3-4 dira gizonezkoak. Beste guztiak dira emakumezkoak. Dena den, poliki-poliki sartzen doaz gizonak, diotenez, geroago eta curriculum gehiago jasotzen dira. Orain urte batzuk ez zen gizonik egoitzan lanean.

Etxez etxeko zerbitzua

Udalan, etxez etxeko laguntza ematen du Ongizate Sailak. Hiru andre dira etxez etxeko langile eta ordezkia ere beti andrea doa. Onuradunen gehienek (edadetuak gehienak) emakumeak nahi dituzte zaintzaile. Ongizate Saileko hiru langileak ere emakumeak dira.

Gurasoak institutuan

Ikastetxeak deitzen dituen bilera orokorretara zein tutoreekin egiten diren aurrez aurreko bileretara joaten diren gurasoen %60a da emakumezkoa. Kasu honetan, urteekin gehitzen doa gizonen inplikazioa eskola kontuetan.

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika, pertsonalitate lehenkugabeekin lan egiten dugu. Cad Cam sistema berritzailea erabiltzen dugu.

Elizburu, 3. behea
SORALUZE
Tel.: 943 75 25 67
Bilag.: 943 62 78 19
e-mail: elizpe@hmail.com

Ordatzlea:
Asteleheneetik ostiralera:
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



 **Kontulan**

Ahoikularitza fiskala · Kontabilitatea
Lan-aholkularitza · Zerbitzu juridikoa
Ticket bai · Outsourcing · Aseguruak

www.kontulan.com

MENDIZABAL
okidegia
Ogia · Prentsa · Gogorak

Asteleheneetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99





Kantu eta jolas saioa Tolareku aretoan.

Hizkuntz aktibismorako deiak

Haurren aurrean helduok heldu ekimena amaitzear da. Bestalde, Pil-pileanek autobusa antolatu du azaroaren 4rako.

Joan zen astetik abian da Haurren aurrean helduok heldu ekimena eta harrezkero, hainbat ekimenetan batu ditu guraso eta umeak, esaterako: kantu eta jolas saioan eta Dolmenen Ibilbideko bisita berezian. Berbalagun egitasmoan ere guraso talde bat eratzea lortu dute. Gaur, barikua ipuin musikatua eskainiko da eta zapatu goizean, berriz, murala margotuko dute Zubi Nagusiko horma batean.

Kike Amonarrizen hitzaldia

Azaroaren 28an, Kike Amonarriz soziolinguista ezagunak hitzaldia eskainiko du herrian, guraso erdaldunei zuzenduta: *Si yo no sé euskera, ¿cómo le puedo ayudar?* izenburupean. Bertan, azalduko du umeek nola ikasten dituzten

hizkuntzak eta gurasoek zer egin dezaketen prozesu hori indartzeko. Horrekin batera, gurasoen galderei erantzungo die. Hitzaldia, Udaleko Hizkuntza Politikarako Batzordeak antolatu du ikastetxearekin eta guraso elkarteekin batera. Lekua eta ordua datozen egunetan zehaztuko dituzte.

Bilborako autobusa

Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak dei egin die plazentziatarrei azaroaren 4an Euskalgintzaren Kontseiluak deituta Oldarraldiaren aurrean euskararekin bat, euskaraz bat lemapean Bilbon egingo den manifestazioan parte har dezaten. Horretarako autobusa antolatu da Soraluzetik eta izen ematea zabalik dago Pil-pileaneko bulegora deituta.

Urteko azken odol ateratzea, azaroan

2023ko azkeneko odol ateratzea azaroaren 24an egingo dute. Horretarako, Itxaropena Erretiratuen Elkartera bertaratuko dira odol emaleen bankuko medikuak, 16:30etik 20:15ak arte. Odola ematera joateko, egunean bertan hitzordua hartu behar da, 943 00 78 84 telefono zenbakira deituta, 08:30etik 13:30ak bitartean.

Erosketa-bonuak eskura, Udalean

Udalak erosketa-bonuak emango ditu egoera ekonomiko zaurgarriak dauden familien artean, 100 euro familia-unitate bakoitzeko. Familien oinarritzko beharrei erantzutea dute helburu eta herriko denda eta saltokietan erabili ahal izango dira. Eskaerak aurrekontua agortu arte (15.000 euro), onartuko dira.

Errigorako saskiak eskatzeko epea

Azaroaren 9ra bitartean eskatu ahal dira Errigorako udazkeneko saskiak. Aurten saski bakarra izango da, 50 eurokoa eta produktu ekologiko zein konbentzionalak jasoko ditu. Eskariak www.errigora.eus webgunean egin ahal dira. Saskiak, berriz, azaroaren 24an jasoko dira, Gaztetxean.



'Tripontziak' ekimenean parte hartuko duten jatetxeetako sukaldariak.

Txurruka jatetxea Tripontziak-en

Debabarreneko bost jatetxek parte hartuko dute Tripontziak ekimeneko aurtengo saioan

Aurten, *Tripontziak* ekimeneko hamargarren edizioa egingo dute Debabarrenean, azaroaren 3tik 26ra, Debegesa Garapen Agentziak eta Debabarreneko Klub Gastronomikoak

antolatuta. Ekimeneko partaide izango dira Soraluzeko Txurruka, Eibarko Baratzte Gourmet, Elgoibarko Belaustegi, Ermuko Mendiola eta Mutrikuko Pikua jatetxeak.

Jatetxe horiek sasoiko eta tokiko produktuekin prestatutako *Tripontziak menuak* eskainiko dituzte, 35 euroan, sarrera, bi plater nagusi (haragia eta arraina) eta Mendaroko txokolatearekin egindako postrea; horrekin batera, ogia, kafea eta ardoa ere sartzen dira menuetan -kontsulta daitezke debabarrenaturismo.com webgunean-.

Bisitak aukeran

Bestalde, iazko arrakasta ikusita, aurten ere bisita kulturalak zein gastronomikoak egiteko aukera izango da *Tripontziak* ekimenak iraun bitartean. Izen-ematea zabalik dago -Debegesara deitu 943 82 01 10-. Horrekin batera, *Tripontziak menua* jaten dutenek bi menuren zozketan parte har dezakete.

Tripontziak ekimenaren helburua da bertako eta garaian garaiko produktuen kontsumoa sustatzea eta Debabarreneko sukaldari, establezimendu gastronomikoak zein bertako produktuak balioan jartzea.

Gerra etetea "premiatzkoa"

Leku askotan bezala, Soraluzen ere salatu zen Gazan gertatzen ari dena; 100 herritar baino gehiago izan ziren elkarretaratze isilean. Kartelak eskuetan, Gazan egiten ari direna genozidioa dela salatu zuten eta gerra eten beharra aldarrikatu zuten. Israeli exijitu zioten, besteak beste, NBERen ebazpenak bete ditzala.





Pozik jaso zituzten sariak gisatu lehiaketako irabazleek, urrian.

80 urtetik gorakoei omenaldia

Azaroaren 17an egingo dute 80 urtetik gorakoen omenaldia Itxaropenan. Urrian, berriz, gisatu lehiaketa eta bazkaria egin zuten.

Urrian egindako gisatu lehiaketak eta ondorengo bazkaria lagatako zapore onak lagunduta, 80 urtetik gorakoen omenaldia prestatzen ari dira Itxaropena Erretiratuaren Elkarteak.

Azaroaren 17an izango da bazkaria, 14:00etan. 90 lagunendako lekua dago. Izena azaroaren 2tik 14ra arte eman daiteke, asteartetan, 11:00etatik-12:00etara eta 16:30etik 18:30era, eguenetan, berriz, 11:00etatik

12:00etara. Itxaropenatik gogora ekarri dute bazkaltiarrek bakarrik joan behar dutela bazkarira. Dena den, norbaitek laguntzailearekin joan beharra badu, laguntzaileak bazkaria ordaindu egin beharko du eta lekua baldin bada bakarrik joan ahalko da.

Omenduak

Aurten Federico Eguren Markaide (1932, Soraluze) eta Mari Cruz Etxaniz (Soraluze, 1928) omenduko dituzte. Biek ala biek oparia jasoko dute eta bazkarira laguntzailearekin joan ahalko dira.

Txoko
Egunko menuak, plater konbinatuak, hamburgeriak, ogitortokiak, noliak, pizzaak, gozaila...
Erlangizak agintzen dira
Tel.: 943 75 17 88

Soraluzeko Kooperatiba Elkarteak
1910etik eskatutako
Arraindegia, janaria, erropak, etxeko tresnak, etxerako eramateko zerbitzua
Astelehenetik ostiralera: 09:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45
Larrietatik: 09:30 - 11:00
Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45

Armendi Jatetxea
Sukaldeko tradizionala
Egunko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bidotsa
Etxeko fritok
Souflak
Tel.: 943 75 10 02

Carpinteria MANU Aroztegia
Atariak, Bantoiak, Puntelak, Sukaldeak, Tatuak
Manuel C. Fuentes
Estazioa 8. barrera - Mug. 636 05 81 25

KM design
Kiru Mantelak
943 76 09 85
km.mantelak@yahoo.es
www.kmdesign.es
Pol. Amilaga 3
BERGARA
■ Diseinueta Fabrikazio lanak
■ Sukaldeak
■ Horma-oinarriak
■ Logelak
■ Zonak
■ Atokiak...
■ Arozterria lanak oro har
■ Instalazioak

Gora (eta behera) Marraskilo Tour!

TESTUA: ANDER GOMEZ

IRUDIAK: MIKEL VALERO ETA ANDER GOMEZ

Pasa den urriaren 7an ospatu zen Marraskilo Tourraren XV. edizioa. 120 lagunek eman zuten izena internet bidez, baina egunean bertan inskribatutakoak gehituta, 150 partaide baino gehiago izan ziren.

Fresko mendi magaleko behe-laino artean, beroago mendi gaineko eguzkipean, gazte zein nagusi, korrikalari zein ibiltari, den-denek disfrutatu zuten Soraluzeko Mendi Taldeak antolatutako urteroko hitzordu berezi honetaz. Eguna borobiltzeko, azkenengo mendizalea Plaza Barrira ailegatzean, 100 partaidetik gora batu ziren aurreneko osteko bazkarira, ibilaldi 'haundixaren' eta 'txikixaren' inguruak elkarri kontatu bitartean indarrak berreskuratuzera.





GUTUNAK

Malmeroko presaren ondoko nire bizipenak

MERTXE GALARRAGA GALARRAGA

Nire bizitza Malmeroko presari oso hurbil eta lotuta igaro zen urteetan. Martxan zegoen zentral elektrikoa gertutik ezagutu nuen, baita ibaiaren ur-goraldiek sortzen zituzten arazoak ere. Nire etxean askotan entzun nituen hitz hauek: alternadoreak, sareko mozketak, kanala, uhatearen garbiketa, uholdeak sotoetan, e.a. Uholdeei dagokienez, ezagutu ditudan handienak ez dira ibaiak eragindakoak izan, menditik datorren uholde-urak eragindakoak baizik.

Orain, presei buruz horrenbeste eztabaida irakurri eta entzuten dudanean, eta planteatutako prozesu parte-hartzailea ikusita, adierazi nahi dut, uholdeen kasuan, faktore

garrantzitsua ibaia ez garbitzea dela, ez bakarrik egungo zaborragatik (lotsa kolektiboa), baizik eta, batez ere, ezagutzen ez genituen adar eta zuhaitzengatik, adibidez, Iturburu eta Gabolats arteko "uhartearen" egungo egoera, umetan jolasten ginen lekua.

Gure herriko uholde guztiek «oztopo» multzo ezberdin horrekin egingo dute topo, presez gain, jakina. Baina badirudi errazago zaigula "etxea teilatutik" hasi gauzak apurtzen, daukagunari egoera onean eutsi baino.


Eta erakunde eskudunak garbitasun hori betetzen duenean, konponbide gisa ulertu/onartu ahal izango dut, justifikatuta badago, presak apurtzea, eta bere "memoria" mantentzen eta baloratzen duen edozein prozesutan parte hartuko dut.

Azkenik, agerikoa da, daukaguna suntsitzen hasi aurretik, gure herriak premia handiak dituela, nahiz eta Merlin proiektuak ematen duen dirua asko izan.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Euskararen kontrako epaiak ugaritzen

Oldarraldiaren aurrean: euskararekin bat, euskaraz bat manifestazioa deitu du Euskalgintzak azaroaren 4rako



NEREA GOIRIA
INSTITUTUKO IRAKASLEA

Lortutakoa borroka bidez lortu da, ez oparituta. Jendea kontzientziarazi denean, atzera egitea da. Euskalgintzaren deia beharrezkoa da. Orain eragin dio udal administrazioari, euskarari; hurrengoan izan daiteke hezkuntzari edo beste zerbaiti eragitea. Adi egon behar da".



IKER UZIN
HIZKUNTZA POLITIKAKO
ZINEGOTZIA

"Administrazio zein zerbitzu publikoetan euskararen erabilera asko zailtzen dute erabakiok. Larria da epaitegi batek kontuan ez izatea hizkuntzen egoera desberdina. Euskalgintzaren deia garrantzitsua da. Udalak bat egiten du eta jendea bertara joatera animatzen dugu".



ARIANNE UNAMUNO
PIL-PILEAN EUSKALTZALEEN
ELKARTEA

"Epai horiek euskararen biziberritzean atzerapausoak egiteko exijitzen dute eta euskara hizkuntza nagusi baten menpean dagoela azpimarratu eta gogorarazi. Bilboko manifestazioak balioko du egiten ari direna gehiegizkoa dela masiboki adierazteko".



EIDER VARELA
ESKOLAKO IRAKASLEA

"Atzerapauso handia da, gauden egoeran babesa eman behar duenak ez badu ematen... Euskalgintzaren deia ezinbestekoa da. Goazen erritmoan ez gara gelditzen ezta gauzak hausnartzera ere; gauza mordoa akumulatzen doaz. Erantzuteko unea da. Nik badut Bilbora joateko asmoa".

PUNTUA



**XABIER IÑURRIETA
LABAIEN**


Kokaina

Poliziak kokaina kargamentua konfiskatu duela hedabideetan maiz agertzen den berria dugu. Kasu batzuetan toneladaka.

Hala ere, lasterketa bat balitz narkoa alde handiarekin irabazten doala aitortu beharko genuke. Dakitenek diotenez "merkatua" asetuta dago eta hauts zuria asko hobetu eta merkatu egin omen da.

Narkotrafikoarekin zerikusia izanda, goian idatzitakoarekin lotzen ez dugun berrien zerrenda laburtua: Narkoak estatu askok baino dirutza handiagoa mugitzen du; Mexikon dozenaka kazetari erailak eta guztira 25.000tik gora tirokatu joan den urtean; Ekuadorren Guayakileko Alkatea eta Presidentetzarako hautagai bat erailak, eta kaleetan biztanleriarentzat segurtasun falta izugarria; Holandan sendo errotu da narokoaren mafia, Parlamentuko diputatuen erdia zaintza bereziarekin mehatxatuak izan direlako.

Eta horrela jarrai dezakegu ad infinitum, baina lasai egon gaitzke, ez dago errudunik. Dirudienez, gero eta jende gehiagok dauka ludiko/jostagarritzat klasifikatua izan den droga hori hartzeko premia larria, hori da guztia.



Baserritarren eta eskulangileen erakusleiho

Azken ukituak ematen ari dira azaroaren 11n ospatuko den Gaztañerre azokarako. Protagonista gehienek, barazkigileek, ganaduzaleek eta artisauek eman dute izena Erregetxean izateko; oro har, iazkoaren antzerako azoka izango da, artisaubat gehiagorekin eta sagarrezko produktuak ekarriko duen Lizagasarreko ordezkartzarekin.

Testua: **Egoitz Unamuno eta Ubane Madera.**

Argazkiak: **E. Unamuno, U. Madera eta Fernan Oregi.**

Bi zapatu barru, Gaztañerre azokaren XXVII. edizioa egingo dute Erregetxean, Soraluzeko Udalaren eta Debemenen eskutik.

Iazkoarekiko aldaketa gutxi batzuekin dator azoka. Horien artetik handiena da, irailetik behien artean zabaldu den gaixotasun hemorragikoaren ondorioz, herriko ganaduzaleen partaidetzarekin lotuta, gerta daitekeenari buruzko ziurgabetasun handia dagoela eta azkeneko momentura arte ezin izango dela seguru jakin zenbat abelburu izango diren azokan.

Ardiak, behiak, astoak eta txerriak

Edozelan ere, antolatzaileek egindako proposamenari kasu eginez, bestetan Gaztañerren parte hartu izan duten ganaduzaleek eman dute izena aurtengoan ere egoteko; azken momentuan ezinezko balitzaie, berriz, Udala egingo da balizko gastuen arduradun.

Hori horrela, honakoek dute parte hartzeko asmoa: Javier Herasek Legarda aldeko ardiekin, Ozuma-gaineko pirenaiekin, Obeko eta Itsasoegiko limusinekin, Iraolabeitiko asturiarrek, Iraolaetxeberriko hereford-ek, Arizagako suitzek eta Barrenetxeko suitzek, astoek eta txerriek.

Barazkigileak, gazta eta sagar produktuak

Barazkigileen partaidetzari dagokionez, berriz, udal ordezkariak jakinarazi dute haien partaidetza indartzeko ahaleginak egin arren, ez dutela emaitza positiborik lortu. Hori horrela, iaz moduan, barazkigile bik parte hartuko dute: Lezarrik eta Arizagak. Biek ala



Lezarri baserriko postua orain dela bi urte.

biek kontatu dute aurtengo uda zaila izan dela; bero handiak batetik, gorrina eta harrak bestetik, ohi baino "lan eta amorru" handiagoa izan dute ortuan, tomatea, adibidez, ezin izan dute behar den moduan hartu. Hala ere, denetariko produktuak ekarriko dituzte azokara: espinakak, piperrak, eskarolak, porruak, azelgak, borrajak, tipulak, kalabazak, erremolatxak, sagarrak, urrak, mizpirak, arrautzak, hiru klase baba...

Barazkigileekin batera beste postu bat izango da Egotzako gaztarekin eta aurtan, Elgoibarko Lizagasar Sagartokiko produktuak ere izango dira azokan, Soraluzekoak izan ez arren, "bere produktuak hemen" saltzen dituztelako gonbidatu dituzte.

Artisauak oparo

Artisauei dagokienez, eskaintza oparoa jarriko dute, iaz baino artisau bat gehiagoren partaidetzarekin. Honakoak izango dira: Julen Mendikute, Arrate Lizarralde, Txaro Fernandez, Edurne Garate, Mayara Zarobe, Cristina Albisua, Nuria Muro, Saadia Nasir, Andoni Gonzalez, Amaia Amor, Antxon Fresnedo eta Lorea Calles. Juan Kruz Arizaga Kortak, berriz, aroztegiarekin lotutako erreminten erakusketa jarriko du.

Taberna ere bai

Azkenik, aurtan ere izango da jan-edana, sagardo lehiaketa eta saltsa, San Andrestarrek azokaren bueltan jarriko duten tabernan, herriko baserrietan ekoiztutako produktuz osatuta. Eta Plaza Zaharrean egingo den babajanarekin borobilduko da Gaztañarre azoka.

Segidan azokako bost protagonistarekin egindako elkarrizketak.



Maitane Maiztegi eta Marisol Ariznabarreta.

"Gaur egun baserritik ezin da bizi ehunetik ehunean"

MAITANE MAIZTEGI ETA MARISOL ARIZNABARRETA GANADUZALEAK

Maitane Maiztegi (Soraluze, 1974) eta Marisol Ariznabarretak (Soraluze, 1945) Gaztañerre azoka hasi zenetik parte hartzen dute bertan. Hasieran ganaduak eta barazkiak eramaten zituzten. Azken urteotan, aldiz, ortu txikia dute, bakarrik etxerako, eta azokara ganadua bakarrik jaisten dute.

Zer ganadu jaisten duzue?

Sei buru ditugu, lau handi eta bi txiki; lau handiak jaisten ditugu. Limusinak dira, okelatarakoak. Lehen esnedunak genituen, baina aldatu egin genuen.

Zergatik?

Sanidad sartu zelako. Esnea marmitetan saltzea debekatu zuten, enbasatu egin behar zen derrigor; horretarako inbertsio handia egin behar zen, eta gero dena konplikatzen zen, baita salmentan ere. Hori pasatzen da produktore txikiek. Inbertsio handiak eskatzen dizkigute eta

gero ez da irabazirik izaten, kontrara, galerak akaso.

Baina okela saltzen duzue?

Bai, etxeko behi kopuruari eusteko. Lau baldin baditugu eta urtean behin txahala egiten badute, etxeko orekari eusteko bat saldu egin behar izaten dugu, baina ez du benefiziorik ematen. Lehen, akaso, parra geratzen zinen, baina orain pentsuak-eta igo direnez, ezer ere ez. Buru asko dutenek irabaziren bat izango dute. Gureak terrenoa garbitzeko daude, anaiak gustuko dituelako...

Noiztik saltzen duzue?

Bizi osoan. Bernardo aitaita hasi zen. Hark Matienara ere saltzen zuen, jatetxeetara-eta, okela ona geneukala esaten zuten-eta. Guk beti Iñakiri (Etxabe) saldu izan diogu. Baina hortik bizi sekula ere ez; hemen ganadua duten gehienek zelaia

mantentzeko, etxerako... dute. Soldata beste nonbaitetik atera behar duzu. Soraluzen, Nagore (Egotza) eta Ezosi (Arizaga) izango dira bertatik bizi diren bakarrak eta hala ere, haien gizonek kanpoan egiten dute edo egin izan dute lan. Gaur egun, baserritik ezin da bizi ehunetik ehunean. Gure aitaita ere tailerrean ibili zen lanean.

Berez duzuen egoera zaila aurten zaildu egin da Moskitoaren gaixotasunarekin.

Bai. Egun batetik bestera jar daitezke gaixo behiak, baina guk ezin igarri; Moskitoaren pikatadatik bost egunez inkubatzen dute. Iraila hasieran gaixotu ziren gure bi behi; ordurako hemen bazeuden kasuak. Gure behi batek besteak baino sintoma handiagoak izan zituen; izaten dituzte mokoak, adurra, zauriak ahoan, mingaina handituta, matrailak handituta... ezin dute ez jan ezta edan ere, batzuk goseak hiltzen dira. Gure biak osatu ziren, baina egin daitezkeen bakarra da antiinflamatorioak eman gaixotzen badira eta bestela, bederatzi egunetik behin, uxagarria bota ikuilura eta behietara. Zorionez, gaixotasuna ez da behi batetik bestera kutsatzen.

Zelan ikusten duzue aurtengo Gaztañerre?

Ikusi egin behar, Moskitoaren kontuarekin ezin da aurreikuspenik egin.

"GURE BI BEHIAK OSATU EGIN ZIREN; GAIXOTASUNA EZ DA BEHI BATETIK BESTERA KUTSATZEN"

"Euskal Herrian bi otargile gelditzen gara"

ARRATE LIZARRALDE SASKIGILEA

Arrate Lizarralde (Muneta baserria, 1957) eta Jose Luis Etxeberría (Nuarbe, 1954) otargileek azokaren hasieratik parte hartzen dute Gaztañeren. laz bakarrik egin zuten kale, etxeko ezkontza bat tarteko. Aurten, berriro izango dira azokan, pozik. Hala ere, etorkizun ilun samarra ikusten dute, ezen eurak eta Gipuzkoako beste bikote bat dira Euskal Herriko azken otargileak.

Azken otargileak zarete?

Azoketan ibiltzen garenon artetik bi gelditzen gara (egon daiteke etxean egiten duenik) eta gu ere laster erretiratuko gara. Bi otargile gaude Gipuzkoan, Nuarben eta Matxinbentan biak (neu Azpeitin bizi naiz), Bizkaian ez dago, Nafarroan ez dago... Adibidez, gu Sustraiaren eta Netflicxen ere atera izan gaituzte.

Zuek zelan zarete saskigile?

Gizonaren familia da otargilea, aitona, birraitona... auzo osoa zen zesterora; nik ez nekien existitzen zenik ere. Gainera, oso zaila da ofizioa ikastea. Txikitatik ikasi behar da. Egurra asko ezagutu behar da, materiala prestatu... Gu ezkondu ginenean hasi ginen, orain dela 42 urte.

Zerez egiten dira otarrak?

Gaztainondoaz; haren adarra sei urtetik behin moztu eta berriz irteten da. Ilbeheran botatzen da, hostoa bota aurretik; gero, egurra uretan



gordetzen da, urtetan. Munetan ogia egiteko laba dugu eta hor egosten ditugu egurrak.

Zertarako erosten dira otarrak?

Perretxikotarako, egurrarendako, baratzerako, adornutarako, Añanako gatzarendako, Nafarroan olibak batzeko ... mila gauzatarako. Bakoitzak bere erabilera ematen dio.

Zeinek erosten ditu eta non?

Euskal Herri osoa pasatu dugu azoketan. Bizkaian bai gazteek eta baita edadetuek ere.

"ARTISAUTZARI
INDUSTRIA TRATAMENDUA
EMAN DIOTE ETA EZIN DA
HORRELA IZAN"

Bizkaitar jendea tradizionala da. Nafarroan piloa saltzen dugu. Gipuzkoan gutxiago ibili gara.

Gogorra lanbidea.

Bai. Asko sakrifikatu gara; urte osoan bost domeka bakarrik izan ditugu etxean egoteko, bestela azokarik azoka ibili behar, astean egindakoa saltzen. Gainera, hasi ginen garaian ez zegoen horrenbeste betebeharrak, baina orain irabazten duzun dirurik gehiena kendu egiten dizuete.

Laguntzarik ere ez dugu eduki, dena dira zergak, dena pegak... orain, adibidez, Ticket Bai-rena, libratu egin naiz 60 urtetik gorakoa naizelako, baina bestela hori ere bai. Eta gazteek ez dute halako lanik nahi. Hala ere, guk, erretiratuta ere, jarraituko genuke akaso erakusten, baina ezin da, ez dute lagatzen. Artisautzari industria tratamendua eman diote eta ezin da horrela izan; dena galdu da. Eskulan mordo galdu da halako gauzengatik. Gu 1981ean hasi ginen; nik ezagutu ditut 40 bat artisau plaza baten bakoitza bere lana egiten, orain, berriz... lehenengo artisautzari lanak denak galtzen ari dira.

Gaztañerre azoka zelan ikusten duzu?

Hor oso ondo zaintzen gaituzte. Gustura ikusten dut horko jendea, lagunak ere asko ditugu. Gustuko herri bat da eta azoka polita da, saltzen dena. Urte guztian saltzen diogu Plazentziako jendeari, enkarguz edo bestela. Baina hor ere gero eta baserritar gutxiagok parte hartzen dute eta beldurra da denborarekin galdu egingo dela.

"Iaz 100 bototik gora jaso genituen"

OIER CERREJON SAGARDO LEHIAKETAREN ETA ERREGETXKO TXOSNAREN ANTOLATZAILLEETAKO BAT

Barrenetxe baserriko Oier Cerrejonek (Soraluze, 1981) sorreratik antolatzen eta parte hartzen du sagardo lehiaketan. Aurten, laugarren aldía izango du lehiaketa horrek, hasita daude xehetasunak lotzen.

Zelatan hasi zineten lehiaketarekin?

Erregetxean saltsa pixka bat eta giroa sortzeko. Ikusten genuena zen kuadrillak-eta eguerdian geratu, txikiteoan hasi eta asko Erregetxera igo ere ez zirela egiten. Jendea Erregetxera erakartzeko, postuak, barazkiak eta ganaduak ikusteko, eta herriko sagardoa dastatzeko txosnatxo bat jarri eta sagardo lehiaketa egitea pentsatu genuen.

Zenbat partaide izaten dira?

5-7 partaide bitartean izaten dira. Ea aurten baten bat gehiago animatzen den. Gehienek errepikatu egiten dute: Mendotz, Arkaitz Arana, Argarate baserria, Ostolaza San Martzialgoa... Guztiak herrian egindako sagardoak izaten dira.

Zein da lehiaketako epaimahaia?

Epaimahaikide dira sagardoa probatzen duten herritar guztiak. Iaz, edalontzia erositara, sagardo guztiak probatu ahal ziren eta horien artetik, herritarrak baloratzen ditu gustukoenak, modu anonimoan. Boto gehien ateratzen duenak irabazten du.

Adibidez, iaz zenbat boto izan zenituzten?

Iaz 100 bototik gora jaso genituen. Dena den, eguerdi aldean-eta, sagardo botila osoa erosten dutenak ere badira, txikiteora datozenak, pintxoarekin-eta jendea etortzen da sagardo eskean nahiz eta ez parte hartu lehiaketan, askorendako 5-7 sagardo edatea asko da...

Eta zeinek irabazi izan du?

ziren. Ez bakarrik lehiaketan. Guk iaz 1.500 bat litro egin genituen. Aurten, oraingoz, 1.100 litro goaz.

Nahikoa sagar dago Soraluzen?

Aurten bai, baina joan zen urtean oso gutxi. Gutxi dagoen urteetan, inguruetatik, lagunentxeetatik ekartzen da behar izaten denean.



Oier Cerrejon, Igor Unamuno, Enaitz Oruesagasti eta Juan Inazio Laskurain.

Iaz, biren artean egon zen lehia, hiruzpalau botoko desberdintasuna izan zen batetik bestera. Orain arte, neuk bi aldiz irabazi dut eta bestea Agarrebeistegik.

Tabernan zenbat botila izaten dira, guztira? Zenbat litro egiten dituzue?

Bakoitzak 20-25 botila bitartean. Iaz denak bukatu

"ERREGETXEAN SALTSA ETA GIROA SORTZEKO HASI GINEN SAGARDO LEHIAKETA ANTOLATZEN"

Aurten zelako sagardoa izango da Gaztañerren?

Orain aurkezten duguna aurten botilaratutakoa da ; polita da, itxura ona dauka. Oso gutxi edan dut, baina probatu dudana, gozoa, suabetxoa pentsatu zait.

Besterik nahi baduzu esan...

Jendea animatzeko eta etortzeko herriko sagardoa probatzera. Txosnan jarriko dira pintxoak (txorizoa eta saiheskia, Okelian hartuta) eta saiheskia, eta salda eta gaztainak, noski.



Babajaneko sukaldariak. FERNAN OREGI.

16 urtez herritarrendako babak kozinatzen

IIÑAKI, ANTO, SEBAS, PAULO ETA IKER SUKALDARIAK

Gaztañerre Azoka egunaren osagai nagusia eta garrantzitsuena azoka bera da, noski, baina horrekin batera, Pil-pileanek antolatzen duen babajana bihurtu da egun horretako ekitaldirik jendetsuenetakoa. Izan ere, urtero urtero ehun eta hirurogei lagun inguru batzen ditu mahai bueltan, elkarrekin babak jan eta ostean kantuan egitera.

2007an ekin zion bost laguneko sukaldari talde batek babak prestatzeari eta hamasei urteren ostean, langintza berean jarraitzen dute.

Lehenaldi hura

Lehenengo babajana 2001ean egin zen, Pil-pileanek antolatuta. Azoka egunean "babak jateko ohitura zabaltzen hasi zela ikusita" erabaki zuten herri-babajana antolatzea "jaia indartzeko". Lehenengo aldi hura, baina,

berezi samarra izan zen Egoitz Unamuno Pil-pileaneko kideak kontatu duenez: "Babak azoka gunean bertan prestatu genituen eta jan ere bertan, postuetako mahaiak aprobetxatuta. Egun hartan hotz handia egin zuen eta gauzak ez ziren atera irudikatzen genuen bezala. Babak hotzak, tresneria falta... Total, kafea atera zenerako ausartenez bakarrik jarraitzen zuten han...". 2002an ez zen bazkaririk egin eta 2003tik 2006ra bitartean, lehiaketa formatuan prestatu zituzten bazkaritarako babak. 2007an dena aldatu zen, karpa eta sukaldariak ailegatu zirenean.

Esfortua eta ACDC

"Itziar Agirrek komentatu zigun ea animatuko ginen babak prestatzera eta baietz esan genion", kontatu du Anto

Estevezek, taldeko kideak. "Esfortua da, baina ondo pasatzen dugu, batez ere, hamaiketakoan, barre onak egiten ditugu...", dio. Anekdotez galdetuta, janik gabe gelditu zirenekoa nabarmendu du: "Urte baten, edo gehiagotan (barreak), sukaldariak babarik eta sakramenturik barik gelditu izan gara eta mahaietan sobratutakoak jan behar izan ditugu... Baina tira, jatera jartzen garenerako ez dugu gose handirik izaten (barreak)".

Sukaldari lanetan noiz arte jarraituko duten?: "Gorputzak aguantatzen duen arte, edo jendea gurekin nekatzen den arte (barreak). Lan handia da baina jendeak eskertzen digu eta guk gustura egiten dugu. Gainera, fondoan ACDCren musika ipinita dena egiten da erraza (barreak)".

Harrera ezinhobea

Gaur egun, babajanak harrera ezinhobea du herritarren artean. Aurten, Pil-pileanek babajanerako eskaini dituen txartel guztiak (145) egun bakarrean saldu dira. Aurten ere, babak Arabatik ekarriko dituzte, Elortza motakoak, Herediako ekoizle ekologiko bati erosita. Ogia Arizaga baserritik, gazta Egotzatik, haragia herriko harategietatik eta sagardoa Elgoibarko Lizagasar baserritik (ekologikoa). Bazkariaren ostean, Unai Brea kantariarekin kantu saioa egingo dute.

"FONDOAN ACDC-REN MUSIKA IPINITA DENA EGITEN DA ERRAZA (BARREAK)"

PUBLIZITATEA

TXURITXU GOZOTEGIA
 Astelehenetik ostiralera: 08:30-13:00 eta 16:30-20:30
 Larunbata: 08:30-13:30
 Igandak: 08:30-14:30



Gosariak, oja, perrea, pisirik, boriboiak...
 Ezera eramateko zerbitzua

Tel: 943 75 24 43

HNOS. BENITO ANIKK
 MUEBLES-ALTZARIAK

Sukaldeak, logelak, egongelak,
 neurrira egindako altzariak...

Santa Ana, 26 - Tel.: 943 75 20 47

Criado
 Fruitategia Urdaitegia

- Enkarguak Whatsapppe
- Etxerako zerbitzua
- Iberikoak & delicatessen

Astelehenetik ostiralera:
 09:00-13:00 eta 17:00-20:00
 Larunbata: 09:00-13:00

629 958 536



SORALUZE MOTOR
 Mendioia ind. 13 Soraluze

476 554 817 - 943 75 21 38



Altmar
 Hezapaindegia
 Exeritza
 Solariuma



Gudoluz 4, Zubero Tel.: 943 75 15 13 - 682 51 14 04

OKELA HARATEGIA

- Enkarguak hartzen ditugu
- Gertuko garabak
- Etxeko tripa, txistoma, salbitza eta mingaina

Etxebaruna 5
 Telefonoa: 943 75 23 75



ION MURGIZU BAKAIKOA PINTOREA

amaria dekoratiboa ingulterria

Tel: 943 75 13 24 Mug: 662 77 70 30



Belarrak
 lera eta belarrendena

Elikagai ekologikoak
 Etxerako zerbitzua

Santa Ana 22
 943 75 30 11



MGS Seguros

Veronica Galarraga
 Gertuko eta segurua

Astelehenetik ostiralera: 10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30
 Santa Ana 13
 645 744 055



IZZUGUIRE
 Igelberritza

Erakin berriak • Kalitateko emaitza
 Erreformak • Era guzietako igelberritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913



Hortz klinika

Evralat 1
 Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso
 Mediku Odontologoa
 K.Z. 48.000.550

Katia Gurrutia
 Odontologoa
 K.Z. 48.001.541

30 urte baino gehiagoko esperientzia
 odontologia, protesak, ortodontia, odontopediatria, implantak, estetikak...
 Zerbitzu radiologiko onakora (D0):
 mikarera, orto eta tele.



FOGASLER
 ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
 fogaslerburgintza@gmail.com



ARRANO
 taberna

Etami eta gozatu
 etxeko pintxoak

Etxebaruna 6



MABEL
 ILEKAPAINDEGIA

- Laser depilazioa
- Keratina tratamendua
- Solariuma

Errabat 1
 Tel.: 943 75 14 89



BOLIA
 TABERNA

Pitxoak, arinak,
 korbinak
 Gazte-giroko festa



Bidelagun euskaltzaletasunean





Emakume taldea multifitnes saioan, eguazten goizean.

Inoizko abonatu gehien

Araneko kiroldegiak inoizko abonatu kopururik handiena dauka; ikastaro kopurua ere handitu egin da, baita haietako zein gimnasio eta igerilekuko erabiltzaile kopurua ere.

Iaztik hona, nabarmen igo da Araneko kiroldegiko erabiltzaile kopurua. Soralezko Udalak emandako datuen arabera, gaur gaurkoz, 997 abonatu ditu, ia guztiak soralezetarrak -kanpotik lanera datozen gutxi batzuk kenduta, baina, horietako gehienek Mugiment erabiltzen dute- Beraz, esan daiteke herritarren laurdena dela kiroldegiko bazkide.

Iazko urte bukaeran 880 abonatu zituen kiroldegiak, beraz, %13 handitu da abonatu kopurua iaztik hona.

110 lagun ikastaroetan

Horrez aparte, igoera nabarmena antzeman da, baita ere, kiroldegiko ikastaroetan eta

haien erabiltzaileengan.

Udalaren datuen arabera, orain, helduentzat 14 ikastaro daude martxan eta iaz 11 egon ziren. Ikastaroetako erabiltzaileen kopuruari dagokionez, helduen ikastaroetan 113 pertsona daude izena emanda eta iazko urrian, berriz, 77 pertsona zeuden. Kasu honetan ere, igoera nabarmena izan da, %46koa. Datu gehigarri modura, ikastaroetan dabilzan 113 lagunetatik bakarrik 11 dira gizonezkoak.

"Hobekuntza gehiago"

Osterantzean, kiroldegiko gainerako zerbitzuetan, bai gimnasioan eta baita igerilekuan ere, erabiltzaile

gehiago dabilzala sumatu dute kiroldegiko langileek, nahiz eta kasu horretan, ezin duten datu zehatzik eman.

Kontuak kontu, pertzepzioak eta datuak eskuartean, Udal Gobernuak modu positiboan baloratu du kiroldegiko erabiltzaile kopurua handitu izana. Unai Larreategi alkateak esandako moduan, kiroldegiko "ikastaroetan tarifa plana ezartzearen eragin zuzena da 77tik 113 pertsonara igo izana. Beraz hartutako neurriaren eraginkortasuna erakusten du. Orain datorren urteari begira ahaleginduko gara zerbitzuan hobekuntza gehiago ezartzen".

Tarifa finkoak jarraipena

Alkateak esandako tarifa finkoa ikasturte berria abiatzeaz batera ezarri zuen Udal Gobernuak, irailean. Haren bitartez, ikastaro bateko kuota bakarria ordainduta, beste edozein ikastarotara joan ahal da erabiltzailea, beti ere lekua baldin badago. Laster, urte berriari begira, urteroko kiroldegiko bazkide eta kanpaina egingo du Udalak eta tarifa finkoaren sistema hori ere izango da eskaintzan.

997

**ABONATU DITU ARANE
KIROLDEGIAK, INOIZKO
KOPURURIK ALTUENA**

**HELDUEN
IKASTAROETAN 113
ERABILTZAILE
DABILTZA, IAZ, 77 IZAN
ZIREN**

Badator berriz bluesa

Azaroan Blues Hotsak jaialdiaren laugarren edizioa egingo da: bost kontzertu, liburu aurkezpen bat eta dokumental proiektzio bat.

Bueltan da Blues Hotsak eta, aurten ere, egitarau oparoa dakar. Kontzertu sorta nagusia azaroko azken asteburuan izango da: 24an De Pedro, 25ean Gisele Jackson eta 26an Musika eskolako konboen kontzertua eta Amythology, Amy Winehouseren antologia. Aste horretan bertan, 22an, Rory Gallagherren gaineko liburua aurkeztuko da eta 23an, Amy dokumentala proiektatu. Lehen kontzertua, baina, azaroaren 10ean egingo da:

Belar Hostoak, Txomin Artolaren kanten "berrirakurketa".

Zaintza zerbitzua

Kontzertuetarako sarrerak azaroaren 4tik aurrera jarriko dituzte salgai Iratxo goxodendan, 10 euroko prezioan. Horrekin batera, aurten, umeak zaintzeko zerbitzua eskainiko dute musika emanaldi guztietan (jakinarazi sarrerak erosteko momentuan).

BARIKUA 10



MUSIKA Belar Hostoak

Txomin Artola euskal bakarlari ezagunaren kantekin osatutako emanaldia da; euskal kantagintzan horren garrantzitsua izan den musikari hondarribitarraren lana berriz deskubritzeko aukera. Musikariaren artean da Urbil Artola semea, Sorotan Bele taldeko kide izandakoa. Taldeak eskainiko duen azken emanaldietako bat izango da. *Azaroak 10, 20:00etan Antzokian.*

EGUAZTENA 22



LIBURU AURKEZPENA Rory Gallagher

Jon Gurrutxaga elgoibartarrak berak ondutako liburua aurkeztuko du: Rory Gallagher Kemena eta leialtasuna. Gurrutxagak Euskal Herrira etorri zenean ezagutu zuen musikari ingelesa eta liburua idatzi du berari buruz.

Azaroak 22, 19:00etan Antzokian. Sarrera debalde.

EGUENA 23



FILM DOKUMENTALA Amy: La chica detras del nombre

Amy Winehouse musikariaren bizitza eta heriotzaren berri ematen duen dokumentala. Bere heriotzaren hamargarren urteurrenean, 2021ean, bere bizi historia berreskuratu nahi izan zuen BBC kateak.

Azaroak 23, 19:00etan Antzokian. Sarrera debalde.

BARIKUA 24



MUSIKA De Pedro

Izen ezaguna da blues eta rock espainiarraren jarraitzaileentzat, *Vacazul*, *3000 Hombres* edo *Amparanoiko* bandetan ibilia. Nazioarteko musikari bihurtu aurretik, Gaztelupeko Hotsakekin grabatu zituen hainbat lan eta orduan jositako harremanari esker izango da Soraluzen.

Azaroak 24, 19:00etan Antzokian.

ZAPATUA 25

**MUSIKA Gisele Jackson**


Suitzan bizi den kantari afroamerikarra da. Bakarka aritu da AEBko jazz klub nagusietan eta mundu osoan jo izan du. House eta dance musikaren olinpoan izana, aktore lanetan ere jardun izan du. Pandemia garaian emanaldi bikaina eskaini zuen Soraluzen. Oraingoan, ostera, maskarik gabe gozatzeko aukera izango da.
Azaroak 25, 19:00etan Antzokian.

DOMEKA 26

**MUSIKA Musika Eskolako konboak**

Soraluzeko herria beti izan da musikazalea eta zaletasun horretan Musika Eskolak izan du bere garrantzia. Aurreko edizioetan bezala, oraingoan ere, herriko musikariek izango dute euren momentua, maila handiko azpiegitura baliatuta. Bi konbok parte hartuko dute.
Azaroak 26, 19:00etan Antzokian. Sarrera debalde.

DOMEKA 26

**MUSIKA Amythology**

Amythology 2015ean Madrilen sortutako tributuzko taldea da, Amy Winehousen ondarea azaleko imitazio hutsa saihestuz, leialki eta zintzoki interpretatzeko. Zortzi taldekide dira, eta Britainia Handiko artistak zuzenean eskaintzen zituen instrumentazioa eta errepertorioa errespetatzen ditu.
Azaroak 26, 19:00etan Antzokian.

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

10 urte bete-bete

urriak 20 - azaroak 9

Eskatu
10 urte bete-bete
saskia!

Saski bakoitzaren balioaren %25 euskoigintzara bideratzen da

50€



errigora.eus

aek



Sortzen



ogerraldia

ZOZKETA Plaentxia.eus-en
Bi saski eta upategira bisita
Eman izena kodea erabiliz



“Han beldurrez bizi ginen”

SOLEDAD GUTIERREZ ETA KATHYA MINAYA PERUTIK EUSKAL HERRIRA

TESTUA ETA ARGAZKIAK: EGOITZ UNAMUNO

Soledad Gutierrez (Lima, 1976) eta Kathya Minaya (Lima, 1994) perutarrek dira jatorriz. Duela hiru urtetik Soraluzen bizi dira, Ezozibidean. Gustura bizi dira, diotenez, euren herrialdean baino “lasaiago”.

Peruko zein lekutakoak bai baina nongoak zarete zehazki?

Gu kostakoak gara, hegoaldekoak, hondartza ondokoak. Lima hiriburutik bi ordura dagoen Lurin distritukoak. Nire amona mendialdetik joan zen kostaldera hamalau urterekin -bera da gure familian kitxua berba egiten duen pertsona bakarra, guri ez digu erakutsi-. Lurinen nekazaritza dago, industria eta turismoa ere bai. **Noiz etorri zineten Soraluzera?** Lehenik, neu (Kathya) etorri nintzen, 2017an, senarrarengana. Bera lehenago etorri zen, ama hemen zuelako. Bi urte egin nituen Eibarren eta ondoren etorri ginen Soraluzera, hemen erosteko moduko etxe bat aurkitu genuelako Ezozibidean. Parkea, bide laua eskolaraino, lasaia... Hasieratik gustatu



Soledad eta Kathya ama alabak.

zitzaigun eta oso gustura bizi gara hemen.

2022an ekarri nituen ama eta ahizpa, eta aurten aita. Han gelditu dira nire aitita-amamak, osabak eta lehengusuak. Nahiko genuke haiek ere ekartzea. Hau beste bizimodu bat da.

Zer diferentzia sumatzen duzue hango bizimodutik hemengora?

Hemengo bizimodua lasaiagoa da. Lurinen enpresa asko dago eta pertsonen mugimendu handia. Jende asko ari da etortzen inguruko

lurraldeetatik: mendietatik, oihanetik eta Lima hiriburutik, Kolonbiatik, Venezuelatik... lanera. Duela hamar urtetik hona, dena aldatu da, industriak ezarri direnetik. Aurretik lasai bizi ginen. Ni (Soledad) gaztea nintzenez, denok ezagutzen genuen elkar eta ez zegoen horrelako arazorik. Orain indarkeria handia dago. Neskatilek ezin dute kalean bakarrik ibili, oso arriskutsua da. Desagertu egiten dira. Han beldurrez bizi ginen.



Soledad eta Kathya senideekin Ezozibidean.



Peru Hego Amerikan.

Batez ere, horregatik etorri ginen. Pentsa, hona heldu ginenean, hasieran alaba gazteari ez nion etxetik ateratzen lagatzen. Gero, poliki-poliki, konturatu naiz hemengo egoera ez dela hangoa. Orain, batzuetan, neu ateratzen naiz gauez paseatzera, lasaitasunaz gozatzeraz.

Lanean ere, han dena ekoiztea, ekoiztea eta ekoiztea. Hemengo enpresek gehiago begiratzen diote pertsonen ongizateari, hangoek ez. Han lanaldiak hamabi ordukoak dira eta segurtasun neurririk gabe. Ni (Soledad) oraindik ere harritu egiten naiz hemen nire suhia zortzi ordu egin eta etxera bueltatzen denean...

Osasun arloan ere berdin, han hiltzean egon behar duzu larrialdietan artatu zaitzaten, bestela, ezer ez.

Lurinek badu beste alderdi bat ere, turistikoa.

Bai, Lurinek hondartza dauka eta udako etxe asko dago. Gastronomía aberatsa du, batez ere, arrainaren inguruan, 'itsasotik platerera!' esaten dugu. Horrez gain, jaialdi eta

azoka asko egiten dira. Guk janaria prestatzen genuen eta saldu. Han ohitura da domeketan eta ospakizunetan txitxarroia (txerrikia) eta tamalak (artoz egindako jakia) jatea. Aitonak jarraitzen du txitxarroia saltzen. Oso sukaldari ona da. Nik (Soledad) sukaldarako gogo hori jaso dut eta alabari ere (Kathyari) pasatu diot.

Gustatuko litzaizueke hemen ere sukaldaritzatik bizitzea?

Bai. Hain zuzen, horixe da gure helburua. Nire senarrak (Kathya) robotika arloan lan egiten du, baina niri eta amari gustatuko litzaizuke sukaldaritzan lan egitea. Nik (Kathya) gozogintza ikasten dihardut Armerian eta sukaldeko zuzendaritza Leioako ostalaritza eskolan, EHUn. Gustatuko litzaizuke etorkizunean lokaltxo bat bilatu eta janari perutarra eskaintzea. Oraingoan, begiratu ditugun lokalak oso garestiak dira. Karretatxoarekin atera beharko dugu kalera... (Barreak).

Zorte on!
Eskerrik askoo!



Kathya eta senarra Lomas de la Chay natur erreserban. KATHYA



Lurineko kostaldea. ELCOMERCIO.PE

"GUSTATUKO LITZAIGUKE ETORKIZUNEAN JANARI PERUARRA ESKAINTZEA HERRIAN"

ZORION AGURRAK



Ekaitz Alonso González
Azaroaren 6an 8 urte.
Zorionak politxo!
Muxu pila familixa
guztiaren partetik!
Asko maixe zaitxugu!



Alaia Martínez Fariñas
Urriaren 31n 5 urte.
Zorionak! Ondo pasa
zure urtebetetzea!
Muxu handi bat
etxeko guztien partez!



Txaro Lete
Urriaren 24an 66
urte. Asko maite
zaitut, arreba.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu:

Internet
Plaentxia.eus-en erabiltzailea
sortu eta [http://plaentxia.eus/
zorionagurrak](http://plaentxia.eus/zorionagurrak) helbidean sartu
zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan
argitaratuko da webgunean
eta hilabeteko azken ostiralean
aldizkarian.

Posta elektronikoa
Mezua bidali [zorionagurrak@
pilpilean.eus](mailto:zorionagurrak@pilpilean.eus) helbidera, eta
idatzi: izen-abizenak, herria,
urtebetetze-eguna eta nahi
duzun testua.

JAI OBERRIAK



Ilargi Oñederra Espilla
Urriaren 18an jaio zen.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Rosa Gonzalez Garcia
Maria Jesus Gallastegi Iraola
Juan Carlos Larreategi Jauregi
Teresa Arizaga Garaikoetxea
Petra Soria Blasco




Jaiotakoak

Aurelia Ariana Grancea
Adam Hajji
Ilargi Oñederra Espilla

OHARRAK

Lan eskeintza

Elgoibarko Fadedek
ileapaindegian langile bat behar
dute. Telefonoa: 624 64 63 36.

 <p>Centro Vasco de Estudios de Administradores de Empresas Instituto Vasco de Administradores de Empresas</p>  <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzen- bidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>AUZIA: Gure komunitatean lau terraza eta patio bat daude. Iritzi desberdinak daude terrazak erabiltzeko moduari buruz. Jakin nahi nuke nola arautu dezakegun egoera hori.</p> <p>INFORMAZIOA: Eraikin baten gainaldean dauden terrazak estalki edo teilatu ere badira, baina horiek erabiltzeko baimena jabekideren bati esleitu ohi zaio. Terrazak erabiltzaileek garbitasun- eta kontserbazio-egoera onean eduki behar dituzte, eta horiek ez betetzeagatik beste jabekide edo etxebizitzaren erabiltzaileei eragindako kalteen erantzuleak izango dira.</p> <p>Era berean, argi-patioak elementu komunak dira, eta lehen solairuek erabili ditzakete. Era berean, jabe guztiek horien garbitasuna bermatzeko betebeharra dute, eta debekatuta dago edozein elementu patioetara botatzea. Patioetan arropa-esekitokiak instalatzeari dagokionez, solairu bakoitzean argi-patioaren kanpoko hormen paraleloan instalatu behar dira. Arropa xukatu egin behar da, eta azpiko solairuko leihoetara ez iristeko moduan eskegi.</p> <p>ONDORIOA: Komenigarria da aipatutako puntuak eta komunitateari kezka sor diezaioketen beste batzuk ere barne araudian jasotzea.</p> <p> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--

ESKELAK

URTEURRENA



Iñaki Laskurain Aranberri



2022ko urriaren 11n hil zen, 65 urte zituela.

“...Barreak nahi ditugu malko gabe,
poztasuna tristura gabe,
gerezia hezur gabe,
negua hotzik gabe...”

Zure familia.

URTEURRENA



Luis Maria Heriz Garmendia “Koldo”



2013ko azaroaren 7an hil zen, 71 urterekin.

“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakienak ikasten ez
duelako dakienak hitzegiten ez duelako baizik”

Sendia.

ESKELA

Teresa Arizaga Garaikoetxea



2023ko urriaren 14an hil zen, 94 urte zituela.

Ederki zaindu duzu gure etxea eta ederto eutsi diozu,
maitasun hariak josiz umil, tinko eta zintzo. Eskerrik
asko ama, amama.

Etxeoak.

bertako
igogailuak | ascensores

Benetako orotariko zerbitzua

100€-tik/hileko

**Igogailuen mantentze-lanen
eskaintza zorrotzera**

2.500 bezerok gugon dute konfiantza

943 903 450 bertako.eus

XXVII. Gaztañerre azoka

10:00 Azokaren irekiera: barazkiak, artisau lanak eta ganadua. Txistularien eta trikitilarien kalejira.

11:00 Pintxoak eta sagardo lehiaketa sanandrestarren eskutik.

13:00 Ekitaldia azokan: dantza saioa eta omenaldia. Ostean, Galtzagorri txaranga kalez kale.

15:00 Herri-babajana karpan.

19:00 Erromeria Bide Batez taldearekin karpan.

23:00 Erromeria Fan&Go taldearekin Gaztetxean.

Gaztañerre Kulturala

Bertso poteoa

Oihana Bartra eta Beñat
Gaztelumendi

Azaroak 9, eguena. 19:00etan,
Gaztetxetik.

Antolatzailea: bertSora.

Blues Hotsak

Belar Hostoak

Azaroak 10. 20:00etan, antzokian.

Antolatzailea: Gaztelupeko Hotsak.

Talo Tailerra

Azaroak 10 eta 18.

Antolatzailea: Gaztelekua.

Txorimalo tailerra

Azaroak 6, 7, 10.

Antolatzailea: Ludoteka.

Gaztaina jana

Azaroak 11, astelehena

15:30ean, ikastetxean

Antolatzailea: Plaentxi Eskola.



SORALLUZKO
URDALA



DEBEMEN



PIL-PILEAN



SORALLUZKO
TXISTULARIAK



SORALLUZKO
URDALA

BertSora
Soralluzeko
bertsozale
taldea



GAZTELUPEKO
HOTSAK



PARANDIAN
IDAZLEAK



SORALLUZKO
URDALA



PLAENTXI
Herri Fikzio